

Gernikako Udala eta Mertzede Ikastetxea

Memoria txostena

**DBHko ikasleen artean euskararen
erabilera informala sustatzeko
proiektua, 2. zikloa**



Universidad
del País Vasco



Euskal Herriko
Unibertsitatea



eusLiderrak
- Mertzedeko DBH ikasleak -

Mertzede DBH – 2012-13

2013-06-28

0. Sarrera

2011n euskararen erabileran urrats bat gehiago eman zuen Gernika-Lumoko Udalak. Helburu horren xede taldeetariko bat izan ziren Mertzedeko Ikastetxeko DBHko ikasleak; 3. mailako ikasleak, hain zuzen ere. Horrela Ahize-AEK-ko teknikariok, **eusLiderrak** egitasmoa diseinatu eta sortu genuen, ikasleak hizkuntza ekologiaren alde sentiberatuz eta lider portaerak garatzeko bideak landuz, hori guztia 3. mailako ikasleen artean erabilera informala sustatzeko helburuarekin.

Proiektua bi ziklotan banatu genuen eta lehen zikloa, 2001-12 ikasturtean burutu genuen. Ziklo honen balorazioa egiterakoan, erabileran igoeraxoa egon zela ikusi ahal izan zen (proiektuaren hasieran eta amaieran erabilera neurtzeko galdetegiak pasatzen ditugu ikasleen artean) eta ikasleetariko asko oso motibaturik ibili zirela ikusirik, 2. zikloari ekitea hitzartu genuen.

Balorazio txosten honetan aurkeztuko dugun **eusLiderrak** egitasmoaren **2. zikloa** berriz, 2012ko azaroan abiatu dugu eta 2013ko apirilean bukatu da. 1. zikloaren eta 2.aren alde nabarmenetako bat honakoa da: oraingoan, ikasleek eurek hartu dute motibazio saioak emateko ardura, hau da, 1. zikloan ibilitako ikasle liderrek, ikasturte honetan 4. mailan ibili direnak, izan dira dinamizatzaileak. Honetarako, Ahize-AEK-k formazioa eskaini die **eusLider** hauei eta ondoren, beraiek izan dira saioen emaileak. Motibazio saioak 3 dira eta DBHko ikastalde osoak jaso ditu, 17 ikaslek guztira.

DBHko irakasle den Ainhua Artetxe ere antolaketa lanetan aritu izan da eta berarekin batera, Mertzedeko Ikastetxeko zuzendaritza behar izan ditugun baliabide material guztiak eskainiz, eta dinamizatze lanetan, 4. mailako 10 dinamizatzaile. Era berean guztiaren koordinatzaile, Udaleko euskara teknikaria, Bittor Zarrabeitia eta Euskara zinegotzia den Espe Uriarte. Guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu lan hau aurrera erooten lagundu digutelako, eta horretarako behar izan ditugun baliabideak gure esku jarri dizkigutelako. Aipamen berezia dinamizatzaile ibili diren 4. mailako dinamizatzaileei egin duten lanagatik eta erakutsi duten indarragatik!

1. Balorazio orokorra

Hizkuntza ohiturak aldatzeak, beste edozein ohitura aldatzeak bezala, ahalegin bat eskatzen du. Ez da oraindik asmatu horren ordezeko pilularik. Baina aldaketa hori modu **atsegin** eta **dibertigarrian** egin daiteke, ez du zertan sufrimenduan oinarriturik egon. Horretarako, garrantzitsua da aldaketa pausoz pauso ematea, unean uneko **helburu lorgarriei** eutsiz, eta, **parte hartzaileen interes** arlo eta **motibazioetatik** ahalik eta gertuen. Ildo honetatik abiatuta, 2. ziklo honen balorazioa egiteari ekingo diogu.

Proiektuaren balorazioa positiboa da. Aurreikusitako ekintza giltzarriak burutu dira, eragina izan dute, eta parte hartzaileak, bai hartzaileak, bai saioen emailak gustura aritu dira eta ongi baloratu dute proiektua.

Ikus dezakegun atalez atal:

Egin

Proiektuan aurreikusitako ekintza guztiak burutu dira.

DBH 4ko 10 ikasle formatu ditugu 3. mailan saioak emateko azaroa eta abendua bitartean.

DBH 3ko ikasle guztiek jaso dituzte 3 motibazio saioak, azaroaren 15etik abenduaren 4ra. Guztira 17 ikasle izan dira hartzaileak.

Hiru saio horien ondoren, apirilera bitarteko saioak borondatezkoak izan dira, hau da, proiektuarekin aurrera jarraitu nahi izan duten ikasleek parte hartu dute eta taldeko proiektutxoa landu dute apirilaren 30erako. Ekintza sozialak lantzeko proiektutxoetarako, abenduko 3. saioan guztiek aurrera jarraitu gura zutela esan ziguten, bik izan ezik, hala ere, apirilera arte lanean aritu direnak, 12 izan dira: **Mikel, Mireya, Iranzu, Julia, Amaia, Janire, Cristina, Dana, Larisa, Oana, Andrea eta Damin. Zorionak egin duzuen lanagatik!!!!**

Eragin

Proiektuak ikasleengan eragina izan duela ikus dezakegu eta baieztapen hauetan hirugarren saioaren ostean puntuazioek gora egiten dutela ikusten dugu, “argi daukat zergatik egin behar dudan hizkuntza aniztasunaren alde eta zergatik den ona euskaraz hitz egitea”, edota, “proiektuak hausnarrarazi egin dit”.

	1. saioa	2. saioa	3. saioa
4. Ez nau hausnartu arazi / Hausnartu arazi nau (7ko puntuazioaren gainean)	5,42	6,72	6,42
6. Argi daukat zergatik egin behar dudan hizkuntza aniztasunaren alde eta zergatik den ona euskaraz hitz egitea: (0 = bat ere egokia / 10 = oso egokia)	8,08	8,00	9,45

Ikus dezagun orain erabilerari dagozkion datuak. Proiektuaren lehen saioa baino lehen erabilera neurtzeko galdetegiak pasatzen dizkiegu ikasleei. Motibazio saioen ostean berriz, amaiera galdetegia, honela hasiera eta amaierako aldea kalkulatzeko dugu:

	ERABILERA (1etik 6ra)			
Galdetegia	1.- Euskara ikasleen arteko harreman-hizkuntza da	2.- Zuk euskara erabiltzen duzu ikaskideekin	3.- Ikaskideek zurekin euskara erabiltzen dute	4.- Ikaskideek haien artean euskara erabiltzen dute
HASIERA	3,8	3,2	3,53	3,46
AMAIERA	4,2	4,4	4,93	4,53
ALDEA	0,4	1,2	1,4	1,07

Puntuaziorik apalena lehenengo baieztapenari dagokio, *euskara ikasleen arteko harreman hizkuntza da*, hala ere guztietan goranzkoa izan da joera.

Proiektuaren bukaerako galdetegian hauexek jaso ditugu:

<i>Euskara gehiago erabili dut (1etik 6ra)</i>	4,58
<i>Euskara gehiago erabili dute ikaskideek (1etik 6ra)</i>	4,33
<i>Euskara gehiago erabiliko dut (1etik 6ra)</i>	4,16
<i>Eskaerak egiten ikasi dut (1etik 6ra)</i>	3,75

• Parte hartzaileen balorazioa

Parte hartzaileek proiektua nola baloratu duten aztertzen badugu, positiboa izan dela ondorioztatu dezakegu, bai irakasleen aldetik, bai proiektuan parte hartu duten ikasleen aldetik ere. Hala azaldu dute ahoz emandako iritzietan eta pasatutako galdetegietan ere, orokorrean zein saioz saikoetan ere.

<i>eusLiderrak proiektuari ikasleek emandako nota</i>	8,79
<i>1. saioaren nota</i>	7,83
<i>2. saioaren nota</i>	9,54
<i>3. saioaren nota</i>	9,00

Hauexek dira ikasle batzuegandik jasotakoak: hainbatek, proiektua hizkuntzen inguruko hainbat aurreiritzi aldatzeko baliagarria izan zaiela aipatu dute:

- *“Oso ondo dago, honi esker asko ikasi dut”.*
- *“Euskaraz hitz egin behar dela ikasi dut”*
- *“Euskara ez dela hizkuntza txikia ikasi dugu”*

Proiektuak edo ekintza sozialak garatzen ibili diren ikasleek berriz, honako adierazpenak egin dituzte:

“Proiektu honekin euskera bultzatzea nahi dugu. Ez da erraza izan proiektu hauek egiteko denbora izatea. Baina azkenean arrakasta izan proiektu hauekin. Proiektu hauekin jendea euskaraz egitera animatzen dugu. Eta horrela euskera mantentzen dugu. Jendea euskaraz egitean motibatzea espero dugu”.

“Euskaraz hazi, euskaraz ikasi, euskaraz bizi”.

Cristina, Dana, Oana, Damin, Larisa eta Andrea.

EusLiderreko proiektua asko gustatu zaigu eta oso interesgarria iruditu. Askok ikasi dugu Euskal Herriko historia eta munduko hizkuntzei buruz. Ideia ona iruditu zaigu hiru saio horiek DBHko ikasleek ematea modu dinamikoan.

Euskararen garrantziari buruz jakinarazi digute eta hura bultzatzeko gogo gehiago ditugu orain”

Taldeka proiektuak egitea dibertigarria izan da eta modu desberdin batean azaldu dugu jendea Euskaraz mintzatzea nahi dugula eta benetan garrantzi handia duela.”

“EUSKARAZ BIZI NAHI DUGU!!”

Mikel, Mireya, Iranzu, Julia, Amaia, Janire.

2.1. Indar-guneak

- Ikasleak proiektuan aritu diren bitartean euskaraz hitz egin dute, beraz, erabilerak gora egin du. Taldeka prestatu duten ekintza sozialerako proiektuan batez ere.
- 4. DBHko ikasleak ibili dira 3.mailakoen dinamizatzailerak; oso fin eta motibaturik aritu izan dira.
- 4.mailako **eusLiderrek** emandako saioek puntuazio ona izan dute eta eragina izan dute 3. mailakoengan, puntuazioetan hala ikusi dugu.
- Erabileran gorakadatxoa egon dela ikusi dugu.
- Ikasleak gustura sentitu dira egin dutenarekin, ondo sentitu diren sentsazioa adierazi digute hasieratik amaierara, batez ere ekintza soziala prestatzen aritu izan diren 12 ikasleak.
- Ekintza sozialera begira proiektu bi aurkeztu dute, baina arrakasta izan du ikastetxeko ikasle guztiek ikusteko lekuetan jarri dituztelako.
- Euskara eta euskararen erabileraren inguruan jaso ditugun ikasleen hausnarketa guztiak, goian aipatu direnak batik bat.
- Ikastetxeak emandako laguntza, bereziki, proiektuan parte hartu duten irakasle eta ikasleek.

2.2. Hobetzeko ildo nagusiak

- Erabilerari dagokionez proiektua abiatu aurreko galdetegietako emaitzei erreparaturaz eta proiektua amaitu osteko galdetegiei erreparaturaz gero, igoera polita izan dela ikusten dugu. Ondo legoke, hurrengo ikasturtean ikasle hartzaileei, datorren ikasturtean 4. mailan egongo direnei nolabaiteko jarraipena egitea erabilerari dagokionez. Sarri askotan horrelako motibazio saioak jaso ostean, igoera nabarmena izaten da, eta interesgarria litzateke joera hori mantentzea.

2.3. Hurrengo urterako erronkak

- 2. ziklo honetan eusLiderrak egitasmoan ibili diren ikasleei erabileraren neurketa egitea, galdetegiek erakutsitako igoera mantentzen den ikusteko, jarraipena egitea, alegia.
- 3. ziklorik egitea erabakiko balitz, aurten 2. zikloan ibilitako ikasleak formatuko genituzke, eurak 3. mailako ikasleekin dinamizatzaile aritzeko.

2. Balorazio zehatza

Hona hemen proiektuan zehar egindakoak eta horien balorazioa atalez atal:

Ekintza giltzarriak	Lorpena	Balantzea
1. DBHko euskara arduraduna eta Ahize-AEK ren arteko bilera egin prozesua adosteko eta 4. mailako lider berriak identifikatzeko.	%100	Egoerari buruzko informazioa jasotzeko eta prozesua adosteko bilera egin zen irailean DBHko euskara arduraduan eta Ahize-AEK-ko teknikariaren artean.
2. 4. mailako ikasleekin bilera 2. zikloaren nondik norakoak azaltzeko eta haien prestutasuna azaltzeko.	%100	Azaroaren 8an, 2. bilera egin genuen, oraingoan 4. mailako ikasleekin, 2. ziklo honen nondik norakoak azaltzeko eta ikasle "liderren" izenak jasotzeko. 10 ikasle agertu ziren prest dinamizatzaile lanetan aritzeko.
3. Informazio kanpaina martxan jarri.	%100	Azaroaren 12tik 16ra bitarteko astean DBHko geletan, informazio paneletan... eusLiderrak "pentsatu, sentitu, egin" leloa adierazten zuten euskarriak jarri ziren, kartela, biorrikoak eta arbela digitalak erabiliz ikasleen jakin-mina pizteko asmoz.
4. Galdetegiak pasatu ikasleei erabilera nola hautematen duten jakiteko.	%100	Informazio kanpainarekin batera, erabilera neurtzeko hasierako galdetegia pasatu zitzairen 3. mailako ikasleei.
5. 4. mailako dinamizatzaileak formatzeko saioak eman.	%100	Azaroaren 15etik 29ra, 4 mailako dinamizatzaileak formazio saioak jaso zituzten Ahize-AEKren eskutik (10 ikasle dinamizatzailek).
6. 1. saioa: Aurrebaldintzak sortu	%100	Azaroaren 20an, 4. DBHko 10 dinamizatzaileek eman zituzten lehenengo saioak. Guztira 17 ikaslek parte hartu zuten eta bi taldetan banatu zen ikastaldea. Saio hau portaeraren aldaketaren aldeko motibazioa lantzekoa izan zen. Honetarako kalitateko informazioa eman zitzairen ikasleei eta aurreiritziak zentsuratu. Jarrerak eta balioak landu ziren; etxerako zeregin/eskaera bat ere egin zitzairen ikasleei bigarren saiorako, erabilera nola hautematen duten jakiteko (ikus eranskinetan 1. saioko eskaera). Saioa amaitzeko, galdetegia pasatu zitzairen (ikus eranskinetan saioaren ondorengo galdetegia).


Ekintza giltzarriak	Lorpena	Balantzea
7. 2. saioa: Pro-aktiboa. Aldaketa erraztu	%100	Abenduaren 27an egin ziren bigarren saioak, eta lehenengoan bezala 17 ikaslek parte hartu zuten. Saio honetan aldaketa eragiteko gaitasunak landu ziren. Eskaera erraz bat egin zitzairen, egingarria zen eskaera bat. Negoziazioaren bitartez, aldaketak eragiteko gaitasuna landu zen saio honetan. Aldaketa hauek eragiteko tresnak eman zitzaizkien. Bukatzeko, galdetegiak bete zituzten (ikusi eranskinetan saioaren ondorengo galdetegiak).
8. 3. saioa: Feedbacka. Aldaketa indartu	%100	Abenduaren 4an izan ziren hirugarren saioak. Lehenengo bi saioetako ikasle berak parte hartu zuten. Aurreko bi saioetan egindakoaren feedbacka eman zitzairen, eta bigarren saioan agindutako eskaeratxoaren emaitzak ikusi zituzten (grabatutako bideoak). Ikasleek hitz egin zuten. Prozesua nola bizi izan duten aztertu genuen, sentrazioak eta pertzepzioak jasotzeko. Amaitzeko, aurreko bi saioetan bezala, galdetegiak bete zituzten (ikusi eranskinak saioaren ondorengo galdetegiak, balorazioak).
9. Amaierako galdetegia pasatu ikasleei, beraien erabilera hautemateko.		Saioen ostean erabileraren inguruko datuak ikusteko, amaiera galdetegia bete zuten.
10. Kamiseta oparitu saioetan parte hartu duten ikasleei	%100	Hirugarren saioan ikasleek kamiseta bana jaso zuten opari gisa eta proiektuarekin aurrera jarraitu nahi zuten ikasleen izenak jaso ziren. Hiru saio hauetan, ikasle guztiek parte hartu zuten, 3. mailako ikasle guztiek. Hemendik aurrera ibili direnak borondatezkoak izan dira, hau da, proiektuarekin aurrera jarraitu nahi izan dutenak ibili dira lanean ekintza sozialaren bidez beraien lana plazaratzeko.
11. 4. saioa ekintza soziala prestatzeko	%100	Urtarrilean ikastetxearen batu ginen berriro ekintza soziala prestatzeko egutegia adostu eta 4. saioa emateko. 4. mailako 3 dinamizatzaile aritu izan dira 3. mailakoei ekintza sozialak prestatzen laguntzeko, eta eurak batu ziren 3. mailakoekin Ahizeko teknikariari itxaron gabe. Iniziatiba hartu zuten eurek!

Ekintza giltzarriak	Lorpena	Balantzea
12. Ekintza soziala prestatzeko ondorengo saioak.	%100	Otsailetik apirilera 12 ikasleak buru-belarri aritu izan dira beraien azken proiektutxoa, ekintza soziala prestatzen: euskararen erabilera sustatzeko bi pankarta egin zituzten. (Ikus eranskinak, argazkiak atala).
13. Ekintza soziala	%100	Maiatzaren 14an ikastetxean batu ginen ikasleek egindako ekintza sozialak ikusi eta idatziko balorazioak jasotzeko (balorazioak goiko atalean, "parte hartzaileen balorazioak" atalean jasota dago).

3. Eranskinak

Atal honetan proiektuan erabilitako hainbat eranskin jaso ditugu:

- **Kartela:** proiektua abiatu aurretik institutuan zabaldu zen kartel mutua.



- **Bi-orrikoak:** proiektuan parte hartu duten ikasleei banatutako bi-orrikoak.

EusLiderrak

Mertze Ikastetxeko DBH

+
 +

pentsatu sentitu egin

XXI. mendean
hizkuntza aniztasunaren alde
egingo duten
liderrak formatzen

EusLiderrak

Mertze Ikastetxeko DBH 2011

- **Helburua:**
Proiektu honen helburua da hizkuntza aniztasunaren alde gogoz arituko diren pertsonak formatu eta aktibatzea.
- **Metodologia:**
Proiektu hau EHUko Gizarte Psikologia eta Giza Portaera Zientzien Metodologia Sailak erakundeetan Berrikuntzaren Kultura Sustatzeko 2003 urtetik hona garatu duen IVO – Incremento del Valor Organizacional proiektuan du oinarri metodologikoa.
- **Antolatzaileak:**
Gernikan garatuko den proiektuaren atal hau Udala, Mertze Ikastetxea eta Ahize-AEK hizkuntza aholkularitzaren elkarlanetik sortu da.

• Proiektua abiatu aurreko galdetegia:

COD 1: Zure kalearen azken bi hizkiak adierazi.

Adibidea:

- BERRIOZ**AR** IBILBIDEA
balitz, adierazi **AR**.

COD 2: Zure auzoaren edo distrituaren azken bi hizkiak adierazi:

Adibideak:

- SAN JU**AN** auzoa balitz, adierazi **AN**.
- DEUS**TU** balitz, adierazi **TU**.

COD 3: Zure telefonoaren (eskukoa edo etxekoa) azken bi zenbakiak adierazi.

Adibideak:

- 650 000 0**43** balitz, adierazi **43**.
- 944 000 1**79** balitz, adierazi **79**.

Erantzuteko aukerak:

Erantzun guztiak egokiak dira, ez daude zuzenak edo hobeak. Benetan pentsatzen duzuna da baliagarriena. Batzuetan, jarraian duzun eskalaren arabera erantzun, beste batzuetan erantzun irekiak dira: kopuruak edo iritziak eskatuko zaizkizu. Galderak orainaldian eginda daude. Hala ere, erantzuteko kokatu zure burua hiru denbora espazioetan: lehen, orain eta gero.

KOD 1:
KOD 2:

1	2	3	4	5	6
Erabat ez-ados Oso gaizki Oso txarra Beti erdaraz	Ez-ados Gaizki Txarra Nagusiki erdaraz	Nahiko ez-ados Nahiko gaizki Nahiko txarra Erdaraz gehiago	Nahiko ados Nahiko ondo Nahiko ona Euskaraz gehiago	Ados Ondo Ona Nagusiki euskaraz	Erabat ados Oso ondo Oso ona Beti euskaraz

	Euskara ikasleen arteko harreman-hizkuntza da	<table border="1"><tr><td>1</td><td>2</td><td>3</td><td>4</td><td>5</td><td>6</td></tr></table>	1	2	3	4	5	6												
1	2	3	4	5	6															
	Zuk euskara erabiltzen duzu ikaskideekin	<table border="1"><tr><td>1</td><td>2</td><td>3</td><td>4</td><td>5</td><td>6</td></tr></table>	1	2	3	4	5	6												
1	2	3	4	5	6															
	Euskara erabiltzen dute ikaskideek zurekin	<table border="1"><tr><td>1</td><td>2</td><td>3</td><td>4</td><td>5</td><td>6</td></tr></table>	1	2	3	4	5	6												
1	2	3	4	5	6															
	Zenbat ikaskiderekin egiten duzu euskaraz? (Kopurua idatzi)	<table border="1"><tr><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td></tr></table>																		
	Zenbat ikaskiderekin egiten duzu euskaraz gaztelaniaz baino gehiago?	<table border="1"><tr><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td></tr></table>																		
	Euskara erabiltzen dute ikaskideek haien artean?	<table border="1"><tr><td>1</td><td>2</td><td>3</td><td>4</td><td>5</td><td>6</td></tr></table>	1	2	3	4	5	6												
1	2	3	4	5	6															
	Euskaraz hitz egiteko gaitasun nahikoa duzu?	<table border="1"><tr><td>1</td><td>2</td><td>3</td><td>4</td><td>5</td><td>6</td></tr></table>	1	2	3	4	5	6												
1	2	3	4	5	6															
	Euskaraz hitz egiteko erraztasuna duzu?	<table border="1"><tr><td>1</td><td>2</td><td>3</td><td>4</td><td>5</td><td>6</td></tr></table>	1	2	3	4	5	6												
1	2	3	4	5	6															
	Zenbateraino zara eroso beste batek euskaraz egiten dizunean?	<table border="1"><tr><td>1</td><td>2</td><td>3</td><td>4</td><td>5</td><td>6</td></tr></table>	1	2	3	4	5	6												
1	2	3	4	5	6															
	Zenbateraino zara eroso euskaraz egiten duzunean?	<table border="1"><tr><td>1</td><td>2</td><td>3</td><td>4</td><td>5</td><td>6</td></tr></table>	1	2	3	4	5	6												
1	2	3	4	5	6															
	Zerk eragiten dizu deserosotasuna?	<table border="1"><tr><td>-</td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td></tr><tr><td>-</td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td></tr><tr><td>-</td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td></tr></table>	-						-						-					
-																				
-																				
-																				
	Zerk eragiten dizu erosotasuna?	<table border="1"><tr><td>-</td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td></tr><tr><td>-</td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td></tr><tr><td>-</td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td></tr></table>	-						-						-					
-																				
-																				
-																				
	Onartzen duzu beste batek zurekin euskaraz egin nahi duela esatea?	<table border="1"><tr><td>1</td><td>2</td><td>3</td><td>4</td><td>5</td><td>6</td></tr></table>	1	2	3	4	5	6												
1	2	3	4	5	6															
	Euskaraz hitz egiteko gogoia duzu?	<table border="1"><tr><td>1</td><td>2</td><td>3</td><td>4</td><td>5</td><td>6</td></tr></table>	1	2	3	4	5	6												
1	2	3	4	5	6															
	Ahalegintzen zara euskaraz hitz egiten?	<table border="1"><tr><td>1</td><td>2</td><td>3</td><td>4</td><td>5</td><td>6</td></tr></table>	1	2	3	4	5	6												
1	2	3	4	5	6															
	Pentsatzen duzu zerbait aldatu egin behar duzula?	<table border="1"><tr><td>1</td><td>2</td><td>3</td><td>4</td><td>5</td><td>6</td></tr></table>	1	2	3	4	5	6												
1	2	3	4	5	6															
	Zenbateraino uste duzu zure esku dagoela euskara zure ohiko hizkuntza	<table border="1"><tr><td>1</td><td>2</td><td>3</td><td>4</td><td>5</td><td>6</td></tr></table>	1	2	3	4	5	6												
1	2	3	4	5	6															

izatea?

--	--	--	--	--	--



Zenbateraino uste duzu zure esku dagoela besteek ere euskaraz egitea?

1	2	3	4	5	6
---	---	---	---	---	---



Zure ustez erabilera oztopatzen duten faktoreetan eragiteko gaitasuna duzu?

1	2	3	4	5	6
---	---	---	---	---	---



Zure erabilera hobetzeko egin dezakezuna argi duzu?

1	2	3	4	5	6
---	---	---	---	---	---



Taldean erabilera hobetzeko egin dezakezuna argi duzu?

1	2	3	4	5	6
---	---	---	---	---	---



Aldaketak negoziatzeko gaitasuna duzu?

1	2	3	4	5	6
---	---	---	---	---	---



Ikaskideek ongi baloratzen dute euskara gehiago egitea?

1	2	3	4	5	6
---	---	---	---	---	---



Taldeak babesten du euskaraz hitz egin nahi duen ikaslea?

1	2	3	4	5	6
---	---	---	---	---	---



Euskaraz hitz egiteko aukera duzu?

1	2	3	4	5	6
---	---	---	---	---	---



Ikastetxeak euskaraz hitz egiteari garrantzia ematen diola sumatzen duzu?

1	2	3	4	5	6
---	---	---	---	---	---



Ikastetxearen jarrera sendoa dela pentsatzen duzu?

1	2	3	4	5	6
---	---	---	---	---	---



Zenbateraino dira atseginak erabilera sustatzeko egitasmoak?

1	2	3	4	5	6
---	---	---	---	---	---



Euskara eta hizkuntzen gaia zure lehentasunetan dago?

1	2	3	4	5	6
---	---	---	---	---	---



Orokorrean konfiantza altua duzu zure pentsamenduetan?

1	2	3	4	5	6
---	---	---	---	---	---



Euskararen erabilerari buruz duzun iritzia hitz gutxitan:

• 1. saioaren ondorengo eginkizunerako fitxa:

ERABILERAREN HAUTEMATEA AZALTZEKO FITXA

Zure ustez zer pentsatzen du jendeak euskararen erabileraren inguruan? Zer entzun duzu?	Zein da adostu dezakegun pentsamoldea edo iritzia?	Nola egin dezakegu hori? Bete ezin diren proposamenak egin, absurdoak.
1.	1.	▪
2.	2.	▪
3.	3.	▪
4.	4.	▪
5.	5.	▪
6.	6.	▪

- Saioen ondorengo galdetegia:

1. **Saioa bere osotasunean balora ezazu** (0 = oso txarra / 10 = bikaina):

0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

Saioa iruditu zait ... (item guztiak erantzun):

2.	Ez motibagarria	1	2	3	4	5	6	Motibagarria
3.	Ez nau gai sentitu arazi	1	2	3	4	5	6	Gai sentitu arazi nau
4.	Ez nau hausnartu arazi	1	2	3	4	5	6	Hausnartu arazi nau
5.	Nahasgarria	1	2	3	4	5	6	Argigarria
6. Argi daukat zergatik egin behar dudan hizkuntza aniztasunaren alde eta zergatik den ona euskaraz hitz egitea: (0 = bat ere egokia / 10 = oso egokia):								
0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10								
Hizkuntza aniztasuna eta euskaraz aritzea iruditzen zait:								
7.	Ez beharrezkoa	1	2	3	4	5	6	Beharrezkoa
8.	Ez interesgarria	1	2	3	4	5	6	Interesgarria
9.	Ez bideragarria	1	2	3	4	5	6	Bideragarria
10.	Premiarik gabea	1	2	3	4	5	6	Premiazkoa
11.	Garrantzirik gabea	1	2	3	4	5	6	Garrantzitsua
12.	Nekeza	1	2	3	4	5	6	Gustukoa
13.	Ez ulergarria	1	2	3	4	5	6	Ulergarria
14.	Ez berria	1	2	3	4	5	6	Berria

15. Saioak sortarazi dizkizun ideiak, pentsamenduak, hausnarketak, ... **idatzi puntuen ondoan** (hartu minutu pare bat erantzuteko):

- | | |
|---|---|
| ▪ | • |
| ▪ | • |
| ▪ | • |
| ▪ | • |
| ▪ | • |
| ▪ | • |
| ▪ | • |
| ▪ | • |
| ▪ | • |

16. **Saioa eta gero ...** (bat aukeratu):

- ☐ Aurretik pentsatzen nuenarekin gelditzen naiz
- ☐ Azaldutako argudioekin gelditzen naiz

17. **Saioa eta gero** (adierazi zein mailatan eragin dizun saioak 0tik 10era zenbaki bat esleituz esaldien ondoan):

- _____ Entzundakoa aurretik pentsatzen nuen
- _____ Nire posizioa positiboagoa da
- _____ Esandakoa lagungarria da jarrera berria garatzeko
- _____ Euskaraz hitz egitea hizkuntza aniztasuna garatzeko bide bat da
- _____ Gako berriak eman dizkit pentsatzeko
- _____ Hizkuntza aniztasuna eta euskaraz aritzea uste baino inportanteagoak dira

Proiektua amaitu ondorengo galdetegia:

MESEDEZ, BEHEKO ERANTZUNAK EMAN BAINO LEHEN, BETE KODE-KOADROA, ONDOKO ARGIBIDEET JARRAITUZ

COD 1: Zure kalearen azken bi hizkiak adierazi.

- Adibidea:
- BERRIOZAR IBILBIDEA balitz, adierazi **AR**.

COD 2: Zure auzoaren edo distrituaren azken bi hizkiak adierazi:

- Adibideak:
- SAN JUAN auzoa balitz, adierazi **AN**.
 - DEUSTU balitz, adierazi **TU**.

COD 3: Zure telefonoaren (eskukoa edo etxekoa) azken bi zenbakiak adierazi.

- Adibideak:
- 650 000 043 balitz, adierazi **43**.
 - 944 000 179 balitz, adierazi **79**.

Erantzuteko aukerak:

Erantzun guztiak egokiak dira, ez daude zuzenak edo hobeak. Benetan pentsatzen duzuna da baliagarriena. Batzuetan, jarraian duzun eskalaren arabera erantzun, beste batzuetan erantzun irekiak dira: kopuruak edo iritziak eskatuko zaizkizu. Galderak orainaldian eginda daude. Hala ere, erantzuteko kokatu zure burua hiru denbora espazioetan: lehen, orain eta gero.

KOD 1: _____
KOD 2: _____

1	2	3	4	5	6
Erabat ez-ados Oso gaizki Oso txarra Beti erdaraz	Ez-ados Gaizki Txarra Nagusiki erdaraz	Nahiko ez-ados Nahiko gaizki Nahiko txarra Erdaraz gehiago	Nahiko ados Nahiko ondo Nahiko ona Euskaraz gehiago	Ados Ondo Ona Nagusiki euskaraz	Erabat ados Oso ondo Oso ona Beti euskaraz

☐	Euskara ikasleen arteko harreman-hizkuntza da	1	2	3	4	5	6
☐	Zuk euskara erabiltzen duzu ikaskideekin	1	2	3	4	5	6
☐	Euskara erabiltzen dute ikaskideek zurekin	1	2	3	4	5	6
☐	Zenbat ikaskiderekin egiten duzu euskaraz? (Kopurua idatzi)						
☐	Zenbat ikaskiderekin egiten duzu euskaraz gaztelaniaz baino gehiago?						
☐	Euskara erabiltzen dute ikaskideek haien artean?	1	2	3	4	5	6
☐	Euskaraz hitz egiteko gaitasun nahikoa duzu?	1	2	3	4	5	6
☐	Euskaraz hitz egiteko erraztasuna duzu?	1	2	3	4	5	6
☐	Zenbateraino zara eroso beste batek euskaraz egiten dizunean?	1	2	3	4	5	6
☐	Zenbateraino zara eroso euskaraz egiten duzunean?	1	2	3	4	5	6
☐	Zerk eragiten dizu deserosotasuna?	-	-	-	-	-	-
☐	Zerk eragiten dizu erosotasuna?	-	-	-	-	-	-
☐	Onartzen duzu beste batek zurekin euskaraz egin nahi duela esatea?	1	2	3	4	5	6
☐	Euskaraz hitz egiteko gogoia duzu?	1	2	3	4	5	6
☐	Ahalegintzen zara euskaraz hitz egiten?	1	2	3	4	5	6
☐	Pentsatzen duzu zerbait aldatu egin behar duzula?	1	2	3	4	5	6
☐	Zenbateraino uste duzu zure esku dagoela euskara zure ohiko hizkuntza izatea?	1	2	3	4	5	6
☐	Zenbateraino uste duzu zure esku dagoela besteek ere euskaraz egitea?	1	2	3	4	5	6
☐	Zure ustez erabilera oztopatzen duten faktoreetan eragiteko gaitasuna duzu?	1	2	3	4	5	6
☐	Zure erabilera hobetzeko egin dezakezuna argi duzu?	1	2	3	4	5	6
☐	Taldean erabilera hobetzeko egin dezakezuna argi duzu?	1	2	3	4	5	6
☐	Aldaketak negoziatzeko gaitasuna duzu?	1	2	3	4	5	6

☐ 	Ikaskideek ongi baloratzen dute euskara gehiago egitea?	1	2	3	4	5	6
☐ 	Taldeak babesten du euskaraz hitz egin nahi duen ikaslea?	1	2	3	4	5	6
☐ 	Euskaraz hitz egiteko aukera duzu?	1	2	3	4	5	6
☐ 	Ikastetxeak euskaraz hitz egiteari garrantzia ematen diola sumatzen duzu?	1	2	3	4	5	6
☐ 	Ikastetxearen jarrera sendoa dela pentsatzen duzu?	1	2	3	4	5	6
☐ 	Zenbateraino dira atseginak erabilerara sustatzeko egitasmoak?	1	2	3	4	5	6
☐ 	Euskara eta hizkuntzen gaia zure lehentasunetan dago?	1	2	3	4	5	6
☐ 	Orokorrean konfiantza altua duzu zure pentsamenduetan?	1	2	3	4	5	6
☐ 	Euskararen erabilerari buruz duzun iritzia hitz gutxitan:						
☐ 	Saioen artean bidalitako lanak egin dituzu?				B ai		Ez
☐ 	Bikoteen proiektuan parte hartu duzu?				B ai		Ez
☐ 	Saioen artean bidalitako lanak egin dituzu?				B ai		Ez
☐ 	Euskara gehiago erabili duzula uste duzu?	1	2	3	4	5	6
☐ 	Ikaskideek euskara gehiago erabili dutela uste duzu?	1	2	3	4	5	6
☐ 	Nola baloratzen duzu proiektu honekin egindako ahalegina?	1	2	3	4	5	6
☐ 	Aurrea begira, lortutakoari eusteko asmoa duzu?	1	2	3	4	5	6
☐ 	Nola baloratzen duzu egitasmoa bere osotasunean (3 saioak barne)?	1	2	3	4	5	6
☐ 	Azaldu hitzez proiektuari buruz duzun iritzia:						

Oparitu zitzaien kamisetan agertzen den logoa:



4. Argazkiak



Cristina, Andrea, Oana, Dana, Larisa eta Damin egindako lana harro-harro erakusten (2013-05-14)



Iranzu, Julia, Amaia, Janire eta Mikel euskaraz bizi nahi dutela adierazten.(2013-05-14)